



**Ebazpena, Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendariarena, etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak urgentziaz aldatzeko dekretu-proiektua jendaurrean jartzekoa.**

Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak dekretu-proiektua egin du etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenen urgentziazko aldaketa arautzeko.

Proiektua izapidetzen ari da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (aurrerantzean 6/2022 Legea) xedatutakoaren arabera, eta behin-behinekoz onartu da 2025eko irailaren 22ko Aginduaren bidez.

6/2022 Legearen 17. artikulua xedatzen duenez, aldez aurretiko kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak beti egin behar dira herritarren eskubide edo interes legitimoak zuzenean ukitzen bazaie, eta, betiere, aurreikusitako salbuespen-arrazoiren bat ematen ez bada

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2 artikulua ezartzen duenez, ekimenaren testua idatzi aurreko kontsulta eragotzi gabe, arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoak eragiten badie, eskumena duen zuzendaritza-zentroak dagokion web-atarian argitaratuko du testua, eragindako herritarrei entzunaldia emateko xedez eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpenak jasotzeko xedez.

Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten eta helburuak arauaren xedearekin zuzenean lotuta dauzkaten antolakunde edo elkarte legez onartuei.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 18/2026 irizpenak dioenez, beharrezkoa da informazio publikoaren izapidea gauzatzea, arau orokorrak herritarrengan izango duen eragina kontuan hartuta.

Hori guztia dela eta, Ingurumen, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 411/2024 Dekretuaren 7. eta 14. artikuluek xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la sede electrónica mediante el localizador indicado al pie de página.  
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, egoitza elektronikoan egiaztatgarria, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen bidez.



**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Jendurrean jartzea, 10 egun baliodunez, etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak urgentziaz aldatzeko dekretu-proiektua, interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzaten.

**Bigarrena.-** Dekretu-proiektuaren edukia Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean (euskadi.eus atarian) egongo da eskuragarri.

Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendaria,